Araugintza
II. ikastaroa

3. saioa
Hiztegia

Arauen laburpena

Ariketak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

ARAUAK: TEORIA 3
Hitz elkarketa 3
Hiztegi Batua 5
Sarrera 5
Bi hitz, hasi aurretik 6
Hiztegia erabiltzeko zenbait ohar 6
Hiztegi Batua: aurkibidea 8
Hiztegi Batua: nafarrera 9
www.euskaltzaindia.net 12
ARAUAK: ARIKETAK 13
Hitz elkarketa 13
www.euskaltzaindia.net 18
Baztertutako hitzak 19
Hobetsitako hitzak 25
Nahasian 27
Nafarrera 36
HIZTEGIA.NET 39

ARAUAK: TEORIA

Hitz elkarketa

(25. araua, 135. or.)

1. Bereiz idatziko dira:

- **Aposizioak** (Arga ibaia, Aralar mendia).
- **Egin, eman, hartu eta eragin** aditzekin osatzen diren aditz elkarteak (lo egin, hitz eman, parte hartu, negar eragin).
- **Etxez etxe moduko bikoiztapenak** (herriz herri).
- **Egin berri modukoak** (amaitu berri, esan berri).
- **Mahai gainean gisako postposizioak** (etxe atzean).
- Bigarren osagaia **bila, eske edo falta duten elkarteak** (ur bila, barkamen eske, lo falta...).
- **Lehen osagaia erdal, euskal, giza eta itsas duten elkarteak,** ihartuak ez diren neurrian. (erdal itzulpena, euskal gramatika, giza zientziak, itsas garraioa...).
- **Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean** (biologi azterketa).

2. Marrarekin idatziko dira:

- **Gorri-gorria** moduko bikoiztapenak.
- **Apurka-apurka** bezalako bikoiztapenak.
- **Seme-alabak**, **zuri-gorri** modukoak.
- **Barra-barra, plisti-plasta** bezalakoak.
- **Gernika-Lumo** moduko leku izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: Lizarra / Estella).

3. Loturik idatziko dira:

- **Jarleku** moduko elkarteak (aditz-erro + izen) : egongela, helmuga, idazmakina...
- **Aldagaitz** bezalako **izaera elkarteak** (aditz-erro + izenondo) : asmaezin, ulerterraz, minbera...
- **Odolustu** moduko **aditz-elkarte** arruntak: indargaldu, biziberritu, azpimarratu...
- Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza** duten elkarteak.
- **Bigarren osagaia -aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde** duten izen elkarketak.
- **Lehen osagaia aurre-, azpi- eta gain-** duten izen elkarteak.
- **Lauburu moduko elkarteak** (zenbatzaile + izen): ehunzango, begibakar...

4. Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala.

- **Eguzki lore, eguzki-lore** moduko izen elkartu arruntak.
- **Kale garbitzaile, kale-garbitzaile** modukoak (bi hitzak letra larriz hasten direnean, hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).

5. Elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean, >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daiteke: biologi azterketa, biologia azterketa.

Bestelako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura eta natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori. [kultur etxea, kultura (-) etxea].

6. Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak.

- **Sudur-luze** moduko elkarte arruntak (*izena + adjektiboa*): (*neska*) *sudur-luze* edo *sudurluze; (zezen) adar-motz* edo *adarmotz*...

Hiztegi Batua

Sarrera

Orain arte ikastaro honetan ikusi ditugun arauak ortografia, izen sintagma eta aditz sintagmari buruzkoak izan dira, gehienbat. Badira, halere, hainbat eta hainbat arau euskal hiztegi batuari dagozkionak, lexikoari dagozkionak. Hor azaltzen zaizkigu Euskaltzaindiak hiztegi alorrean hartu dituen erabakiak edota gomendioak: orain arte onartu dituen hitzak, euren aldaerak, zein hitz baztertu dituen, bi hitz zuzenen artean zein hobesten den, eta abar.

Atal zabal honetan, eta praktikotasunari begira, nolabaiteko sailkapena egitea iruditu zaigu onuragarri; horretarako, interesatzen zaigun araua (hitza) bilatzeko ordena egokian eta logikoan zerrendatu ditugu arauak. Hau da sailkapena:

Hiztegi Batua (arau guztiak alfabetikoki ordenaturik)

44. arautik (a – alleluia) 107. araura (zabal – zuzter) [badira tartean Hiztegi Batuari ez dagozkion zenbait arau]; haien ondoren, hiztegiaren bigarren idatzaldian sartzen ari diren hitzak agertzen dira: 112. arautik (a – abolizionista) 148. araura (e – ezuste).

Hitz baztertuak

Berriki arte erabili izan diren hitzak eta azkenik Euskaltzaindiak txartzat eman dituenak, eta, beraz, euskara batuan erabiltzekoak ez direnak: ausentzia* e. **absentzia** / eskubi* e. **eskuin** (hau da, *ausentzia* gaizki dago (*), beraz, erabili (e.) **absentzia**).

Hitz hobetsiak

Zuzenak eta onartuak diren bi hitzen artean, zenbaitetan Euskaltzaindiak bakarra hobetsi du Euskal Herri osoari zuzenduak diren testuetan-eta erabiltzeko: guda h. **gerra** (hau da, hainbat euskalkitan erabiltzen ahal da *guda* hitza, baina hobe (h.) *gerra* erabiltzen bada).

Nafarrera

Ez da, agian, hitz egokia atal hau izendatzeko –ez baitago nafarrera bat-, baina praktikoa denez, zilegi bekigu horrela erabiltzea. Atal honetan sartu ditugu Hiztegi Batuan *Ipar*. eta *Naf*. ikurra daramaten hitzak: ezongi *Ipar*. eta *Naf*. iz. ‘ondoeza’

Bi hitz, hasi aurretik

Hiztegi Batuak Euskaltzaindiak hiztegi alorrean hartu dituen erabaki eta gomendio guztiak hartzen ditu bere mendean. Hiztegi arauemailea da, beraz.

Gaur egun darabilgun liburuxka Hiztegi Batuaren lehen idatzaldia da; hori dela eta, askotan ez da agertuko gure lanerako behar dugun hainbat hitz edota hitz horien azalpenik. Hiztegi bat osatzearen prozesua luzea da eta tentu handiz aztertu behar dira behin betiko hitzen formak eta edukiak ezer erabaki aurretik. Horregatik daude oraindik dauden gabeziak.

Forma bat edo beste aukeratzeko orduan, bi irizpide nagusi izan ditu Euskaltzaindiak:

a) Tradizio idatzia eta egungo erabilera (Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskara Corpusa).

b) Alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobestea.

Hiztegian jasotzen ez diren hitzei buruz esan behar da, bestalde, Euskaltzaindiak ez dituela oraingoz onartzen, baina ezta gaitzesten ere. Oro har, hitz horiek bigarren idatzaldian onartuko edo gaitzetsiko dira.

Hiztegia erabiltzeko zenbait ohar

2.1. Hitz baten aldaeren artean Euskaltzaindiak aldaera bat onartu du eta besteak baztertu. Aldaera baztertuekin bitara jokatu du:

a) Zalantzazkoak baztertu egin dira, aldaera baztertuari izartxo bat erantsiz eta *e*. ikurraren ondoan forma hobetsia adieraziz: “erropa* e. arropa”.

b) Gehiengo handi batek dialektaltzat jotzen dituen aldaerak (barri, izandu...) baztertu eta horien ondoan erabili beharrekoa adierazi da. Esan behar da, bestalde, *e*. ikurra daramaten hitzok adierarik arruntenetan soilik gaitzesten direla: esaterako, “kartera* *e*, diru(-)zorro, paper(-)zorro” sarrerak adierazten du adiera horretan soilik gaitzesten dela, ez bestetan.

2.2. Hainbat hitzen formaren atzean *Bizk.*, *Ipar.*, *Naf.*, *Gip*.... ikurrak ematen dira. Hitzok ez dira baztertzen; aitzitik, euskalki hitzok Hiztegi Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek **erabiltzera.**

2.3. *Heg*. ikurrak adierazten du hitz hori normalean Hegoaldean soilik erabiltzen dela, baina ez zaio inolako oztoporik jartzen hitz hori erabiltzeari. Beste batzuetan

adierazi nahi da delako hitza berria dela eta gaztelania ez dakitenentzat ulergaitza dela; horregatik askotan *Ipar*. marka daramaten hitzekin osatuko dute bikote bat: *Heg. alfonbra* eta *Ipar. tapiz*. Beraz, forma biak onartzen dira.

2.4. Beste hitz batzuek "h." (hobe) ikurra daramate ondoan. Hemen bi multzo bereizten dira.

a) Euskalki marka daramatenak. Horrelakoetan, "hobe" hori Euskal Herri osoari begira idazten diren testuetako erabilerari soilik dagokio (*Guaixe* edo *Ttipi-ttapa* aldizkarietan, esaterako, hitz egokia izan daiteke).

b) "**Zigarro** 2 *Heg*. "zigarro txikia" h. **zigarreta**" edo "**partidu** *Heg*. 1 h. **partida**". Euskaltzaindia konturatzen da zaila dela idazle guztiek hauek denak onartzea hasieratik, baina pausoka joaten bada... Senak erakutsiko du nola jokatu egoera bakoitzean.

2.5. Aditzei dagokienez, era burutua, aditzoina eta era burutugabea adierazten dira. Zenbaitetan, gainera, aditzoinak aukera bikoitza du –*ahuldu*, *ahul*(*du*), *ahultzen* edo *gorritu*, *gorri(tu)*, *gorritzen*-. Parentesi artean dagoen *(-du)* edo *(-tu)* horrek esan nahi du izen, izenondo nahiz aditzondoetatik eratorritako aditzetan, *ez dadin ahuldu* eta *ez dadin ahul*, biak onartzen direla.

2.6. Hainbat sarreratan hitzaren maila adierazi da, behe mailakoak –lagunartekoak eta herrikoiak- eta goi mailakoak edo jasoak –literarioak, etab.- bereiziz.

- Erabileraren aldetik, hitz zaharkituak (zah.), gutxi erabili direnak (g. er.) eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak (g. g. er.) ere markatu dira.

- Orobat, teknika eta zientzia hitzei dagokienez, bakoitzaren alorra mugatu da (Mat., Admin.) laburduren bidez.

- Sinonimoak: batzuk beteak dira eta beste batzuk ez. Adibidez, euskarazko *bela* guztiak *haize*(-)*oihal* dira, eta orobat *haize*(-)*oihal* guztiak *bela*; hortaz, "**bela** *Sin*. **haize**(-)**oihal**" eta "**haize**(-)**oihal** *Sin*. **bela**" eman dira; baina, aldiz, nahiz *azote* guztiak *zigor* izan, *zigor* guztiak *azote* ez direnez, "**azote** *Sin*. **zigor**" eman da, baina ez alderantzizkoa.

2.7. Sarrera askotan hitzen adierak zenbakien bidez ematen dira. Adibidez: herbal *batez ere Ipar*. eta *Naf*. 1 'ahula'. 2 'elbarria'. Adiera bakoitza argitze aldera, definizio xumeez eta hitz adierazgarriez baliatu da Euskaltzaindia. Esaterako: bezatu "animaliak hezi". Era berean, betortz "letagina" ematen denean, *betortz* hitza argitu nahi zaio ezagutzen ez duenari eta, bide batez, adierazi *betortz* baino erabiliagoa eta egokiagoa dela *letagina* hitza.

Hiztegi Batua: aurkibidea

44 a - alkohol
46 alleluia – arratsalde
48 arraun – azuzena
54 ba – belztura
55 bemol – bidari
56 bidaro – bizartsu
58 bizeps – buztintsu
61 caboverdetar - diametro
62 diapasoi – dotrina
63 dozena – entzutetsu
64 eñe – erretratu
65 erretreta – esplotazio
67 esponja – expres
68 ez – fotografo
69 fotoi – gainalde
71 gainazal – garaño
72 garapen – gogoangarri
74 gogobete – hautsarazi
75 huatsezin – iguzki
77 ihabali – irudi
79 irudialdatu – jorratzaile
80 jorubera – koala
81 koalizio – kontsultatu
83 kontsumitu – lan
84 lanabes – lekoa
86 lekora – lozorro
88 luandar – makina bat
89 makineria – matrikulatu
90 matrize – mintzura
91 minuet – nahastura
93 nahi – oihan
94 oihanbide – orburu
95 ordain – ortopediko
96 ortozik – pasmo
97 paso – pikaldi
98 pikante – postu
100 postura – santu
101 santugile - soprano
102 sor – swazilandiar
103 tabako – to
104 tobera – triskatu
105 triskilatu – tzartasun
106 u – yuppie
107 zabal – zuzter
112 a – abolizionista
117 abonamendu – agertze
118 agi – ahozuri
119 ahuakate – aitzitik
120 aitzur – aldaratu
121 aldarazi – alo
123 aloe – analogiko
124 analogo – antzoki
126 antzu – arbindu
127 arbitrario – arlotetu
130 arma – arrimu
131 arriskatu – askatu
132 askatzaile – atomatu
134 atomika – aurpegi
135 aurpegiera – azalkeria
136 azalkizun – azuzena
138 b – berriz
144 berrizale – buzuntz
146 c - dvandva
148 e – ezuste

Hiztegi Batua: nafarrera

(Hiztegi Batuan onartzen diren “nafar” hitzak)

§ **abarrikatu** *Naf.* 'abarrakitu'

§ **abiadura** iz. *Ipar.* eta *Naf.* 'hastapena'

§ **adin izan** *da/du* ad. *Ipar.* eta *Naf.*: *Pello eta biok adin(ak) gara* (hots, 'adin berekoak').

§ **adiskidego** iz. *Lap.* eta *Naf.*: 'adiskidetasuna, adiskidantza'

§ **adrendu** iz. *Naf.* 'trebetasuna'.

§ **adrendua hartu** *Naf.* 'era hartu': *makina berriari adrendua hartu dio.*

§ **akitu**, aki, akitzen. *da/du* ad. **1** 'asko nekatu'. **2** *Naf.* 'amaitu, bukatu'.

§ **Arrantzari** Sin. Arrantzale

§ **basa** *Ipar.* eta *Naf.* 'basatia': *gizon basa bat.*

§ **beheiti** *Ipar.* eta *Naf.* adlag.

§ **beheititu**, beheiti(tu), beheititzen. *Ipar.* eta *Naf. da/du* ad.

§ **berant** *Ipar.* eta *Naf.* izond.: *aza berantak landatu ditugu.*

§ **beratz** *Lap.* eta *Naf.* 'bera, biguna'

§ **bidexendra** *Naf.* 'bidezidorra'

§ **bonet** *Ipar.* eta *Naf.* 'txapela'

§ **debalde** *Ipar.* eta *Naf.* 'alferrik': *debalde duzu deusen erratea.*

§ **dendari** Gaur *Ipar.* eta *Naf.* 'jostuna'.

§ **egurketa** *Ipar.* eta *Naf.* adlag. 'egur bila'

§ **ezongi** *Ipar.* eta *Naf.* iz. 'ondoeza'

§ **fite** *Ipar.* eta *Naf.*

§ **gasna** *Lap.* eta *BNaf.* h. gazta

§ **gisu** *Ipar.* eta *Naf.* 'karea'

§ **gisuki** *Ipar.* eta *Naf.*

§ **gisuztatu**, gisuzta, gisuztatzen. *Ipar.* eta *Naf. du* ad.

§ **goititu**, goiti(tu), goititzen. *Ipar.* eta *Naf. da/du* ad.

§ **hainbertze** *Lap.* eta *Naf.* h. hainbeste
hainbertzenarekin

§ **hamabortz** *Ipar.* eta *Naf.* h. hamabost

§ **hazil** *Lap.* eta *BNaf.* h. azaro

§ **haztaka** *Ipar.* eta *Naf.* 'haztamuka'

§ **hegal 1** 'teilatuaren, kapelaren... ertza'. **2** *Ipar.* eta *Naf.* 'hegaztien hegoa'. **3** 'arrainen igeri organoa'

§ **herbal** *batez ere Ipar.* eta *Naf.* **1** 'ahula'. **2** 'elbarria'

§ **herbaldu**, herbal(du), herbaltzen. *da/du* ad.

§ **herbaltasun**

§ **hirur** *Ipar.* eta *Naf. Zah.* h. hiru

§ **hondar 1** *Ipar.* 'hondoa'. **2** *Ipar.* eta *Naf.* 'azkena': *urtearen hondarrean.*
hondarreko: *hondarreko aldian.*

§ **hondarraldi** *Ipar.* eta *Naf.* 'azkenaldia'

§ **iaio** *Gip.* eta *Naf.* (bi silabatan esaten da)

§ **iaiotasun**

§ **idor** *Ipar.* eta *Naf.* 'lehorra, agorra'

§ **iduri** iz. *Ipar.* eta *Naf.* h. irudi
iduri izan *Ipar.* eta *Naf.*: *iduri du eri dela.*
ene iduriko *Ipar.* eta *Naf.* 'nire ustez'

§ **igan**, igaten. *da* ad. *Ipar.* eta *Naf.* 'igo'

§ **igerika** *batez ere Ipar.* eta *Naf.* 'igerian'

§ **ihizi** *Ipar.* eta *Naf.* h. ehiza

§ **ilar 1** *Pisum sativum.* **2** *Ipar.* eta *Naf.* 'babarruna, indaba'
ilar xabal *Ipar.* eta *Naf.* 'dilista'
ilar xehe *Ipar.* eta *Naf. Pisum sativum*

ilar biribil *Ipar*. eta *Naf*. *Pisum sativum*

§ **ilbeltz** *Gip*. eta *Naf*. h. urtarril

§ **itaxur** *Ipar*. eta *Naf*. *Sin*. itogin

§ **itze** *Ipar*. eta *Naf*. h. iltze

§ **izi** *Ipar*. eta *Naf*. h. izu

§ **ja** *Ipar*. eta *Naf*. 'dagoeneko; ordurako'

§ **jautsi**, jauts, jausten. *Lap*. eta *Naf*. h. jaitsi

§ **kalaka** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **kalakari** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **kario** *Ipar*. eta *Naf*. 'garestia'

§ **kariotasun** *Ipar*. eta *Naf*. 'garestitasuna'

§ **kariotu**, kario(tu), kariotzen. *Ipar*. eta *Naf*. *da/du* ad. 'garestitu'

§ **karrika** *Ipar*. eta *Naf*. 'kalea'
karrika egin 'kale egin, huts egin'

§ **komekatu**, komeka, komekatzen. *Naf*. *da* ad. 'Jauna hartu'

§ **konparantza** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **larderia** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **larderiatsu** *Ipar*.

§ **larderiatu**, larderia(tu), larderiatzen. *Ipar*. *da/du* ad.

§ **larrazken** *Ipar*. eta *Naf*. 'udazkena'

§ **laxatu**, laxa, laxatzen. *Ipar*. eta *Naf*. *da/du* ad. **1** 'askatu'. **2** 'lasaitu'. **3** 'zabartu'

§ **marro** *Ipar*. *eta Naf*. 'aharia'

§ **martinsalto** *Ipar*. eta *Naf*. h. matxinsalto

§ **matela** *Ipar*. eta *Naf*. 'masaila'

§ **mazela** *Ipar*. eta *Naf*. (malda, hegia)

§ **mazelako** *Ipar*. eta *Naf*. iz.

§ **mendratu**, mendra, mendratzen. *Batez ere Ipar*. eta *Naf*. *da/du* ad. 'gutxitu; ahuldu'

§ **milesker** *Ipar*. eta *Naf*. 'mila esker'

§ **mutilgo** *Ipar*. eta *Naf*. 'morrontza'

§ **nabala** *Ipar*. eta *Naf*. h. labana

§ **negargale** *Naf*. 'negargura'

§ **nekazalgo** *Naf*. 'nekazaritza'

§ **nolanahika** *Ipar*. eta *Naf*. 'nolanahi': *ez da, ordea, nolanahika egiteko lan bat.*

§ **odoleztatu**, odolezta, odoleztatzen. *Ipar*. eta *Naf*. *da/du* ad. 'odoldu'

§ **odoluri** *Ipar*. eta *Naf*. *Sin*. odolbatu, odolbildu

§ **ohatze 1** *Ipar*. eta *Naf*. iz. 'ohea'. **2** *Ipar*. 'etzauntza'

§ **oinaztura** *Naf*. 'tximista'

§ **ongixko** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **orantza** *Naf*. 'legamia, altxagarria'

§ **ortzadar** *Ipar*. eta *Naf*. h. ostadar

§ **ortzegun** *Lap*. eta *Naf*. h. ostegun

§ **ortzirale** *Lap*. eta *Naf*. h. ostiral

§ **padera 1** *Ipar*. eta *Naf*. 'danbolina'. **2** *Heg*. 'zartagina'

§ **paga 1** *Ipar*. eta *Naf*. 'lansaria': *apezen paga*. **2** *Heg*. (haurrei ematen zaiena)

§ **patar** *Ipar*. eta *Naf*. 'aldapa'

§ **pobrezia** *Ipar*. *eta Naf*. 'pobretasuna'

§ **sagarroi** *Ipar*. eta *Naf*. *Erinaceus europaeus*. *Sin*. kirikino, triku

§ **saldo** *Ipar*. eta *Naf*. 'talde (handia)'

§ **sesio** *Gip*. eta *Naf*. 'liskarra'

§ **suko** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **sura** *Ipar*. eta *Naf*

§ **sutik** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **tetele** *Ipar*. eta *Naf*. 'ergela'

§ **tetelekeria** *Ipar*. eta *Naf*.

§ **tripot** *Ipar*. eta *Naf*. 'odolkia, odolostea'

§ **tripotx** 'ardi-erraiak'

§ **txopin** *Naf*. 'zotina'

Hiztegi Batuan Naf. Euskalki marka hartzen ez duten hitzak, baina gehienbat Nafarroan erabiltzen direnak.

§ **afera** ‘arazo, kontu’
§ **agudo** ‘laster, berehala’
§ **aitatxi** ‘aitona’
§ **aitzin** ‘aurre’
§ **aiztur** (pl.) ‘artazi, guraize’
§ **alor** ‘lantzen den lurra’
§ **amatxi** ‘amona’
§ **aratxe** ‘txekor, txahal’
§ **arestian** ‘orain dela une bat’
§ **arotz** ‘errementari’
§ **arrantzari** Sin. Arrantzale
§ **arras** `oso´
§ **ausiki** ‘hozka egin’
§ **barride** ‘auzo, auzokide’
§ **deus** ‘ezer’
§ **ebatsi** ‘lapurtu’
§ **enantzu** ‘trebezia, abilezia’
§ **eri** ‘gaixo’
§ **gaurgero** ‘honezkero’
§ **gaztanbera** ‘gatzatua, mamia’
§ **goitika egin** ‘oka egin’
§ **goraintzi** (pl.) ‘eskumuin’
§ **hagitz** ‘izugarri’
§ (**hitz-debeku** ‘toteltasun’)
§ **horma** *Sin*. izotz, lei
§ **jendaki** ‘ahaide’
§ **joare** ‘zintzarri’
§ **jostatu.** *da* ‘jolastu’
§ **josteta** ‘jolas’
§ **kasu (egin, eman)** ‘kontuz, erne’
§ **katagorri** ‘urtxintxa’
§ **kirats** 1 usain txarra 2 samin
§ **laketu** ‘gustura egon, ohitu’
§ **legar** ‘harea, hondar’
§ **maindire** ‘izara’
§ **maingu** *Sin*. herren
§ **materia** *Herr*. zornea
§ **narda** ‘nazka, higuin’
§ **nardatu** ‘nazkatu’
§ **osatu** ‘zikiratu’ (Larraun, Sakana)
§ **ostots** ‘trumoi’
§ **paratu** ‘jarri’
§ **pikatu** 1 ‘ebaki’ (belarra...). 2 ‘landu’ (harria..). 3 ‘zorroztu’ (sega...)
§ **pikor** ‘ale, garau’
§ **pixagale** ‘pixagura’
§ **poliki** 1 ‘nahiko ongi, franko ongi’. 2 ‘astiro’
§ **puska** 1 ‘zati’. 2 ‘une’. 3 ‘handi’. 4 ‘franko’
§ **sarri** ‘gero’
§ **sobera** ‘gehiegi, lar’
§ **solas** ‘hitz’
§ **solas egin** ‘hitz egin’
§ **tenore** ‘garaia, ordua’
§ **tripotx** 'ardi-erraiak'
§ **ugalde** ‘ibaia’
§ **umerri** ‘bildots hila’
§ **urin** ‘gantza, koipe’
§ **urindatu** ‘gantzutu, koipetu’
§ **urrin** ‘usain on’
§ **urtatx** (pl.) ‘Gabon-sari’
§ **xalo** ‘xume, atsegin’
§ **xatar** ‘pixohial’
§ **zafra** ‘jipoi’
§ **zafratu** ‘jipoitu’
§ **zaharreria** ‘zahartasun’
§ **zanpatu** ‘jipoitu’
§ **zapatu** ‘sakatu, zanpatu’
§ **zare** ‘otarrea, saskia’
§ **zarta** 1 ‘leherketa, kolpe’. 2 ‘masaileko, ipurdiko’
§ **zartatu** 1 ‘pareta masaz estali’. 2 ‘zart egin, lehertu’
§ **zealdo(ka)** ‘zabu(ka), balantza(ka)
§ **zintzur** ‘eztarri’
§ **ziztu** ‘lastertasun handia’
§ **zolda** ‘kraka’

www.euskaltzaindia.net

Hauxe da Euskaltzaindiaren webgunearen helbidea. Hiztegi Batuaz gain, baditu zenbait atal interesgarri –batzuk aski ezezagunak- eta saiatu beharko dugu ikasten zer dagoen webgune barruan eta non aurki ditzakegun askotan izaten ditugun zalantzen erantzunak. Ikus ditzagun, bada, atal horiek.

Arauak

Hitzak berak dioen bezala, orain arte argitaratutako arauak eta gomendioak aurkitzen ahal dira. Aski ezaguna denez, bere horretan utziko dugu beste azalpenik gabe.

Jagonet

a) Jagonet zerbitzua: kontsulta- eta aholku-zerbitzua, euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitekoa.

b) Galde-erantzunen datu basea: dudaren bat izanez gero, aukera ederra ematen du duda horiek argitzeko. Orain arte eginiko galderak kontsultatzeko ere balio du.

c) Galdelekua: galde-erantzunen datu-basean kontsultatu eta erantzunik topatu ez baduzu, Euskaltzaindikoei zuzenean galdetzeko tokia da hau.

Izendegiak

Hor agertzen zaizu nola idatzi eta esan behar diren euskaraz: pertsona izenak, abizenak, herriak, mendiak... Horien gaineko galdera egiteko aukera ere badago.

Irizpenak

Zenbait gairen inguruan Euskaltzaindiak berak, Gramatika batzordeak eta Onomastika batzordeak emandako erantzun edo iritziak kontsultatzeko atala.

Corpusa

Euskararen ikerle ororentzat baliagarri izango diren hizkuntza-datutegiak biltzen ditu. Hementxe daukazu UZEI elkarteak egin duen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa.

ARAUAK: ARIKETAK

Hitz elkarketa

A. Adierazi hitz elkarketaren bidez letra lodiz nabarmendutako zatiak

1. Kafetegi horretan ematen duten **(patatekin egindako tortilla)** ..... oso gozoa da.
2. Zuen **(semeen eta alaben)** ..... eskolako zuzendaria ikusi dut.
3. Oñatin izan gara, **(txokolatea egiten duten fabrika)** ..... ospetsua ikusten.
4. **(Arantzabal abizena duen jaunak)** ..... deitu du telefonoz.
5. 20 lerroko **(idatzizko lana)** ..... egiteko esan digu irakasleak.
6. Gaur **(Pilar izena duen amonaren)** ..... etxean bazkalduko dugu.
7. Bihar **(igerian egiteko lekura)** ..... joatekotan gelditu gara lagunak.
8. Zerua garbi badago **(Larrun izeneko menditik)** ..... itsasoa ikusten da.
9. **(Fisika ematen digun irakaslea)** ..... gaixorik dago.
10. **(Anaiek eta ahizpek)** ..... guztiek bazkaria eginen dute sagardotegian.
11. **(Aitonaren eta amonaren)** ..... etxean igaro dut uda.
12. **(Ikasleen eskola jarduna ebaluatzeko saioetan)** ..... maiz astia falta izaten da ikasle guztiei buruz mintzatzeko.
13. **(Bata ezkerreko etxebizitzan eta bestea eskuinekoan)** ..... bizi dira **(ama eta alaba)** .....
14. **(Sagardoa gordetzeko botilak)** ..... mahai gainean daude.
15. **(Argazkiak egiteko makina)** ..... berria daukat.
16. **(Esertzeko leku)** ..... guztiak okupaturik daude.
17. Partida amaitutakoan, **(aldatzeko geletan)** ..... ikusiko dugu elkar.

18. Hau ez da **(bizitzeko modua)** .....! Nazka-nazka eginda nago!
19. **(Martin izena duen osabarentzat)** ..... ekarri dugu urdaiazpikoa.
20. **(Olibekin egindako olioa)** ..... omen da onena.
21. **(Galdera dela adierazteko erabiltzen den marka)** ..... paratzea ahantzi zaizu.
22. **(Ordenagailuak dauden gelan)** ..... dago **(informatika irakasten duen irakaslea)** .....
23. Nahiago ditut **(sendatzeko belarrak)** ..... bestelako botikak baino.
24. **(Erabat bustita)** ..... iritsi ginen etxera.
25. **(Aparkatzeko prestaturiko lekuan)** ..... sartu behar izan dut autoa, kalean ez baitut tokirik topatu.
26. **(Sariak banatzeko ekitaldira)** ..... jende anitz etorri zen.
27. Iñaki Perurena **(harriak jasotzen dituena)** ..... da.
28. Azken **(hiru hilabetean)** ..... oraingoan baino emaitza hobeak lortu nituen.
29. Edurneren **(aurrez izaten dituen iritziek)** ..... kalte besterik ez digute egin.
30. Lehenengo bi esaldiak **(azpian marra bat egin)** ..... behar dituzue.
31. **(Ehun zango dituen animalia)** ..... gutxi ikusi dut nire bizitzan.
32. **(Odolik gabe gelditu zen)** ..... hil zen, hain zen handia zauria!
33. **(Buruan ilerik ez dutenek)** ..... hotz handia pasatzen dute neguan.
34. **(Gizaki ororen eskubideak)** ..... mundu osoan errespetatu beharko lirateke.
35. **(Belaunaldi batetik bestera)** ..... transmititutako ohiturak dira gureak.

B. Zuzendu akatsak

1. Ez dut uste etxean lo-egin duenik.
2. Igandero mendirik-mendi ibiltzen da.
3. Txomin-Harategia, Arraindegi Txitxarro ez bezala, oso txukuna da.
4. Bihotz bihotzez eskertuko nuke zu bihar hemen izatea.
5. Tartekamarteka elkartzen gara hitz-aspertu bat egiteko.
6. Aipatuberri duzun hitz hori ez da oso aproposa testu-inguru horretan erabiltzeko.
7. Apustu zale amorratu anitz dago gure herri honetan.
8. Gaur-egungo harrijasotzaileek prestakuntza handia dute.
9. Kirol-zale asko omen dago Gasteizen.
10. Kontukontari eman genuen gau osoa eta hurrengo goizean lo-gale ginen.
11. Belarri-motz hori beti erdaraz aritzen da.
12. Eskol-liburu hau oso aspergarria da.
13. Bulego-buru horren eragina oso txikia da.
14. Ikasketaburuak esan dit zer egin behar dudan.
15. Euskal-literaturaren etorkizuna ez da oso argi ikusten.
16. Istripuan mina-hartu genuen buruan.
17. Ogi-eske joan natzaio bizi-lagunari.
18. Nork erabakitzen ditu produktuen salneurriak?
19. Trenez egingo dugu joan-etorria.
20. Zuzendari-ordearen iritziz gaur-arratsaldean ez genuke eskolarik eman beharko.

C. Zuzen itzazu gaizki daudenak; batzuetan bi aukera daude, jar itzazu biak

1. Oso gaizki lo-egin dut bart, ez dut begirik bildu.

2. Gazte-gaztetatik oporretan mendirik-mendi ibiltzen dira.

3. Harategia Txomin oso txukuna da.

4. Bihotz bihotzez eskertuko nuke zuek hemen izatea.

5. Tarteka-marteka elkartu eta afaltzera joaten gara.

6. Aipatuberri duzun hitz hori ez da oso aproposa.

7. Apustuzale amorratu asko dago herri honetan.

8. Kontu-kontari eman genuen gau osoa.

9. Eskol-liburu batzuk oso aspergarriak izaten dira.

10. Ikasketa-buruak esan dit nola egin behar den.

11. Jangelan utzi dut, eta ez ordenagailugelan.

12. Batik-bat ogi-bila joan gara azokara.

13. Jon lotsa-gabe hutsa da.

14. Ume hiltzailea kartzelan dago.

15. Zer iritzi duzu euskal kulturaren etorkizunaz?

16. Zenbat zango dituzte ehun-zangoek?

D. Itzul itzazu ondoko hitzok

Adinerad@:	Foca:
Previsión:	Cartera:
Oferta de trabajo:	Cuanto antes:
De lleno (zerbait asmatu):	Sin vergüenza:
Infraestructura:	Flexibilidad:
Superficie:	Participante:
Floristería:	Hacer borota:
Ciempiés:	Código postal:
Tomadura de pelo:	Estar en venta:
Apasionad@:	Ida y vuelta:
Vicepresidente:	Caza de brujas:
Increíble:	Sospechoso:
Derogar:	Indestructible:
Once o doce:	Equipo rojiblanco:
Barco:	Sala de cine:
Marinero:	Angulo recto:
Parque Erreniega:	Antigüedad:
Peluca:	Faro (itsasokoa):
Dirección:	Sordomud@:
Meta:	Guardaespaldas:
Planta de café:	Columna vertebral:
Descafeinado:	Cráneo:
Polen:	Ganas de vomitar:
Florero:	Sesión de bertsos:
En cualquier sitio:	Lengua materna:
Pupila (begikoa):	Niebla:
Provisional:	Definitivo:

www.euskaltzaindia.net

Hitz galduen bila

1. Non begiratu beharko nuke *nere* edo *nire* esan behar den jakiteko?
2. Cordoba edo Kordoba idatzi behar da?
3. Onartzen da *galdeikur* hitza? Zein, bestela?
4. Nola idatzi behar da: Etxarri-Aranatz edo Etxarri Aranatz? Non begiratu?
5. Bila ezazu *Josetxo* izena. *Josepa* izena ere agertzen da?
6. Inork galdetu dio Euskaltzaindiari *Iñaxio* izenaz? Zer dio Euskaltzaindiak izen hipokoristiko horiei buruz?
7. *Ekoiztu* / *ekoitzi*. Bietako zein hobesten du Hiztegi Batuak?
8. Hitzaldi bat ematen ari zara Baionan. Ondorengo zein hitz erabiliko zenuke une jakin batean: berbetan, hizketan, solasean, eleka, elestan, autuan? Denak onartzen dira?
9. Zer esan nahi du “osatu” aditzak? Nafarroan ere bai?
10. Transkribitu edo transkribatu?
11. Tripandi? Tripa-handi?
12. Material guztia / materiale guztia / materiala guztia?

Baztertutako hitzak

Askotan zabarkeriaz-edo, euskaraz ari garela gaztelaniazko hitza erabiltzen dugu burua gehiegi nekatu gabe, nahiz eta askotan jakiten dugun hitz horren euskal ordaina zein den. Hitz horietako asko eta asko Euskaltzaindiak baztertu egin ditu euskara baturako, hau da, *izartxoa (*)* jarri die ondoan eta beste hitz bat erabiltzea proposatu du (e) jarrita.

A. Hona hemen, horietako zenbait. Ea asmatzen duzun zein den Euskaltzaindiak proposatutako hitza!

§ ABENIDA*: etorbide, hiribide
§ ABER*: ea
§ ABIADORE*: pilotu, hegazkinlari
§ ABIONETA*: _____
§ ABONU*: 1. laudorioa 2. e. ongarri 3. e. abonamendu
§ ASANBLEA*: _____
§ ASEGURU-KONPAINIA*: aseguru(-)etxe
§ ASENTAMENDU*: kokagune, kokatze
§ ASESINATO*: erailketa
§ ASIGNATU*: esleitu, izendatu, eman, egokitu
§ ASIGNATURA*: _____
§ ASIGNAZIO*: esleipen, izendapen
§ ASISTITU*: 1. lagundu 2. etorri (edo joan, izan)
§ ASOZIATU*: elkartu, etab.
§ ASPIRADORA*: _____
§ ASPIRATU*: (arnasa) hartu, (hautsa) irentsi, (airea) xurgatu
§ ASPIRAZIO*: hasperen
§ ASTILLERO*: _____
§ ASUNTO*: _____
§ ASZENSORE*: igogailu
§ ATASKO*: 1. (auto) ilara 2. buxatze, buxadura (arteriako buxadura)
§ ATENDITU*: kasu egin
§ AZEITUNA*: _____
§ AZUFRE*: _____
§ BETERINARIO*: _____
§ BOLKAN*: sumendi
§ BOLTSA*: _____
§ DESARROILATU*: garatu
§ DESARROILO*: garapen
§ DETENITU*: atxilotu
§ DIBUJO*: marrazki, irudi, etab.
§ EDIFIZIO*: _____
§ EJERZITO*: _____
§ EKILIBRIO*: oreka
§ ERREFLEXIO*: 1. _____ 2. Fis.
§ ERREPRESENTATU*: antzeztu, irudikatu, adierazi, ordezkatu
§ ESKALERA*: eskailera
§ ESPIA*: _____
§ FRAILE*: _____
§ FRANELA*: flanela (fr. flanelle)
§ FRENTE*: fronte
§ FUTBOLIN*: mahai(-)futbol
§ GASA*: _____ (fr. gaze)
§ GASOIL*: _____ (fr. gas-oil)
§ GINEBRA*: _____ (fr. gin)
§ GRUA*: _____
§ JARDIN*: Lorategi
§ JUBILAZIO*: _____
§ KAJOI*, KAXOI*: _____ (fr. tiroir)
§ KALDERA*: galdara (eus. galda)
§ KAMARA*: 1. kamera 2. ganbera (fr. 1.camera, 2.chambre)
§ KAMELU*: gamelu

§ KAMARERO*: zerbitzari (fr. camarera: serveuse)
§ KARDENAL*: kardinal (fr. cardinal)
§ KARNET*: nortasun(-)agiria, gidabaimen
§ KARRETERA*: errepide
§ KARRETILA*: eskorga
§ KARTERA*: diru(-)zorro, paper(-)zorro (fr. portefeuille)
§ KARTULINA*: kartoi mehe
§ KIROFANO*: operazio(-)gela, ebakuntza(-)gela
§ KOJIN*: _____ (fr. coussin)
§ KOKODRILO*: ____ (fr. crocodile)
§ KONTESTU*: _____ (fr. contexte)
§ KORTINA*: errezel (2. mailan, gortina) (fr. ricleau, cortine)
§ KOTXE*: 1. e. auto(mobil), beribil 2. zalgurdi, bagoi
§ KRITERIO*: irizpide
§ KUALITATE*: Nolakotasun
§ KULTO*: 1. Kultu (erlij) 2. e. ikasi, landu
§ KUTXARE*: koilara (fr. cuillere)
§ LENTEJA*: dilista
§ LEOPARDO*: lehoinabar, pantera
§ LINO*: liho
§ LITERA*: ohatze
§ MAGISTERITZA*: irakasle(-)ikasketak / irakasle(-)eskola
§ MANTENIMENDU*: mantentze
§ MARIONETA*: txotxongilo
§ MINORIA*: gutxiengo
§ MONEDA*: moneta 1. h. “diru, dibisa” 2. e. “txanpon”
§ MONSTRUO*: munstro
§ MOTIN*: mutin (fr. mutinerie: insurrección de tropas)
§ MUSKULO*: gihar, muskulu
§ ONDA*: uhin
§ PARRAFO*: paragrafo
§ PEAJE*: ordaintoki, ordainsari
§ PELOTA*: pilota
§ PISZINA*: igerileku
§ POLBORA*: bolbora
§ RAZIONAL*: arrazional
§ RECORD*: errekor
§ RIFLE*: errifle
§ RITO*: erritu
§ RUGBY*: errugbi
§ RULETA*: erruleta
§ SEDA*: zeta
§ SENADORE*: senatari
§ SOLOMILO*: azpizun / solomo sin. azpizun
§ SONDA*: zunda
§ SUJETO*: subjektu
§ SUSTANTIBO*: substantibo
§ SOZIETATE*: 1* e. gizarte. 2 (elkarte mota): sozietateen alorreko legeria.
§ TAXISTA*: taxilari
§ TONELADA*: tona
§ TORRE*: dorre
§ TRASTERO*: trasteleku
§ TRINEO*: lera
§ ZERTIFIKATU*: ziurtagiri
§ ZUMO*: zuku (edo, elkarketetan, -ur: laranja-ur)

B. Baztertutako hitzak

Euskaltzaindiak euskara baturako baztertu dituen hitzetako batzuk aldaera dialektalak edo ortografikoak dira. Beste batzuetan, berriz, nolabaiteko zalantza sortzen duten hitzak dira baztertutakoak, gaizki eratuak daudelako, adibidez.

Ea asmatzen duzun zein diren Euskaltzaindiak onartu dituen formak!

§ ABOTS*: _____
§ AGIRIKO*: ageriko
§ AHALBAIT*: albait
§ AINITZ*: _____
§ AMANKOMUN*: _____
§ AMUTS*: kamuts
§ APOSTU*: apustu
§ ARTILERIA*: _____
§ ASPIL*: azpil 1. animaliei jaten ematekoa 2.”bandeja”
§ AURREKALDE*: _____
§ AUTOGIDARI*: gidari
§ AZPIMARKATU*: azpimarratu
§ BAIEZTU*: baieztatu
§ BAINAN*: _____
§ BARATZURI*: baratxuri
§ BASAZAIN*: basozain
§ BEGININI*: begi-nini
§ BELARDENDA*: _____
§ BEREIZTU*: _____
§ BERETSU*: bertsu
§ BIGIZTA*: begizta
§ BILDUR*: _____
§ BIRTUTE*: bertute
§ BIZARMAKINA*: bizar(-)makina
§ BIZKOTXA*: bixkotz, bizkotxo
§ BOLAJOKO*: bola(-)joko
§ BOLONDRES*: _____
§ BORROINA*: borraja
§ BULEGOGIZON*: bulegari
§ BURRUKA*: _____
§ DEIHADAR*: deiadar
§ DERRIGORREZ*: nahitaez, baitezpada, behartuta
§ DEUSEZTU*: deuseztatu
§ DIGESTIOBIDE*: digestio(-)aparatu
§ DIRUZANTZA*: diruzaintza
§ EDUKIN*: _____
§ EHUNDAKA*: _____
§ ENTREPRESA*: enpresa
§ ENTSEIATU*: entseatu (lit. < saio, saiakera)
§ ENTSEIU*: entsegu (ensayo)
§ ENTZULEGO*: _____
§ EPOTX*: ipotx
§ ERABAKIOR*: erabakigarri
§ ERDERA*: _____
§ ERITZI*: _____
§ ERIZPIDE*: _____
§ ERLAZANTZA*: erlezaintza

§ ERRETOR*: erretore
§ ERROPA*: _____
§ ESKILARA*: eskailera
§ ESKUBI*: _____
§ ESKUBILA*: eskuila
§ ESTUASUN*: estutasun
§ ETENDU*: eten
§ FRANGO*: franko
§ FRUTU*: fruitu
§ GAISO*: _____
§ GALDEIKUR*: galdera(-)marka
§ GALDEMARKA*: galdera(-)marka
§ GALDE-ZEINU*: galdera(-)marka
§ GARTZELA*: kartzela
§ GENERAL*: jeneral
§ GIHARRE*: _____
§ GIZAGAJO*: gizagaixo
§ GOARDA*: guarda
§ GOARDAZIBIL*: guardia zibil
§ GOARDIA*: guardia
§ GOILARE*: koilara
§ GRUA*: _____
§ HAITZ* (zuhaitza): haritz
§ HAIZKORA*: aizkora
§ HALTZARI*: altzari
§ HAREZ GERO*: harrezkero
§ HAROTZ*: arotz
§ HARRI BITXI*: harribitxi
§ HARRIDURA-IKUR*: _____
§ HATZAMAR*: atzamar
§ HATZAZAL*: azazkal
§ HAUNDI*: _____
§ HEREXE*: heretiko
§ HERIOTZE*: _____
§ HIBAI*: ibai
§ HOZPERA*: hozbera
§ HUMIL*: umil
§ IDURIMEN*: irudimen
§ IFERNU*: infernu
§ IGON*: igo
§ IGONGAILU*: _____
§ IHARDUERA*: jarduera
§ IHARDUN*: _____
§ IHARDUNALDI*: _____
§ IHAUTERI*: _____
§ IHAZ*: iaz
§ IKUILU*: ukuilu
§ IKUTU*: _____
§ ILEAPAINDEGI*: ile(-)apaindegi
§ ILEAPAINTZAILE*: ile-apaintzaile
§ INGURUTREN*: aldiriko tren
§ INMUNITATE*: immunitate
§ INSEKTIZIDA*: intsektizida
§ INSEKTU*: intsektu
§ INSTANT*: istant
§ IPAR-ORRATZ*: iparrorratz
§ ISLADA*: _____
§ ISLADATU*: _____
§ ITSASUNTZI*: _____
§ ITAIZUR*: itaxur, itogin
§ ITOTE*: itaxur, itogin
§ IXTANTE*: istant
§ IZAKERA*: _____
§ IZKUTU*: ezkutu
§ JARRAI* (izenondoa): jarraitu
§ JEIKI*: itaxur, itogin

§ JEITSI*: jaitsi
§ JOAREDUN*: joaldun
§ JOSKURA*: jostura
§ KABIA*: habia
§ KAINABERA*: kanabera
§ KAINOI*: _____
§ KALKULAMAKINA*: kalkulagailu
§ KANPAINA DENDA*: kanpadenda
§ KAPIRIO*: gapirio
§ KARATXO*: garatxo
§ KARTELDEGI* (gaztelaniazko "kartelera" esateko): ikuskizunak
§ KARTOIFIN*: kartoi mehe
§ KATAKUNBA*: katakonba
§ KERAMIKA*: zeramika
§ KERAMIKARI*: zeramikari
§ KIDER*: gider, kirten
§ KITARRA*: _____
§ KOARTEL*: kuartel
§ KOINAK*: koñak
§ KOKILDU*: _____
§ KOLIFLOR*: _____
§ KOMISALDEGI*: polizia(-)etxe; komisaria h. Polizia(-) etxe
§ KONFIDANTZA*: _____
§ KONPROMEZU*: _____
§ KORBATA*: gorbata
§ KRISKET*: kisketa
§ KULUSKA*: kuluxka
§ KUNPLITU*: konplitu
§ KUTIZIA*: gutizia
§ LAPURKETA*: _____
§ LAREHUN*: _____
§ LAROGEI*: _____
§ LETRA NAGUSI*: _____
§ LETRA XIPI*: _____
§ LIKIDU*: likido / isurkari sin. likido
§ LISERIKETA*: _____
§ LISIBA*: lixiba
§ MAIL*: maila
§ MAKAILAO*: bakailao
§ MAKILAIA*: _____
§ MAKUTSIK*: mahuka-hutsik
§ MANTENIMENDU*: mantentze
§ MARRASKILO*: barraskilo
§ MATERIALE*: _____
§ MERKALDI*: merkealdi
§ MERKETU*: _____
§ MEZPREZATU*: mespretxatu, "gutxietsi"
§ MINISTERGO*: ministerio
§ MINISTERITZA*: ministerio
§ MINISTRARI*: ministro
§ MINISTRARITZA*: ministerio
§ MOETA*: _____
§ MONASTEGI*: _____
§ MOTORE*: motor
§ MUSTIO* (edaria): muztio
§ MUSTUR*: mutur
§ NEUMATIKO*: pneumatiko
§ NEUMONIA*: pneumonia
§ NONNAHI*: nonahi, non-nahi
§ NORANTZA*: noranzko
§ NOTARI*: notario
§ OH!*: _____

§ OHITURATU*: _____
§ OHOSTU*: Ostu
§ OIAL*: Oihal
§ OIAN*: Oihan
§ OIHALDENDA*: _____
§ OKOTZ*: Kokots
§ ORAI*: _____
§ ORDURARTE*: ordura arte, ordu arte
§ OTARTEKO*: _____
§ PAKE*: bake
§ PANPIN*: panpina
§ PEKATU*: _____
§ POXPOLU*: pospolo
§ PREJITU*: frijitu
§ PROBETXATU*: aprobetxatu
§ SAPAI*: _____
§ SEGERETU*: sekretu
§ SEIREHUN*: _____
§ SEKULAN*: _____
§ SERRAILA*: sarraila
§ SIRIMIRI*: zirimiri
§ SOFRITU*: sufritu
§ SOLIDARITZA*: solidaritate
§ SOLIDU*: solido
§ SOMATU*: sumatu
§ TANTU*: _____
§ TILISTA*: dilista
§ TINTATU*: tindatu
§ TRISTETU*: tristatu
§ TXANPAIN*: xanpain
§ TXANPU*: xanpu
§ TXINGURRI*: txindurri
§ TXITO*: 1. txita 2. txit
§ TXITXARE*: zizare
§ TXULO*: zulo
§ UGARTE*: _____
§ UNTZI*: _____
§ URJAUZI*: Ur-jauzi
§ URKO*: hurko
§ URRITZ*: hurritz (ur ≠ hur)
§ XAGU*: _____
§ XAGUXAR*: _____
§ XEHETU*: xehatu
§ XIMAUR*: simaur
§ XIRIMIRI*: zirimiri
§ XIXA*: ziza
§ XURI*: zuri
§ YOGUR*: _____
§ ZABALUNE*: zabalgune
§ ZAI*: _____
§ ZAKURKUME*: txakurkume
§ ZAKURTEGI*: txakurtegi
§ ZERBIETA*: aho-zapi
§ ZERBITU*: _____
§ ZERRAILA*: sarraila
§ ZIRUJIA*: kirurgia
§ ZUZPERTU*: suspertu
§ ZUZTER*: zuztar

Hobetsitako hitzak

A. Aukeratu hobetsitako hitza

Hemen dituzu hitz-bikote batzuk. Bi hitzak ongi daude, baina bien artean Euskaltzaindiak bat **hobesten du** bestearen kalterako. **Azpimarra ezazu hobesten den hitz hori.**

- ainara ..... enara
- aise..... aisa
- aurrez ikusi ..... aurreikusi
- zitori ..... azuzena
- bakantza..... opor
- bakazio..... opor
- bakterio..... bakteria
- bataila ..... gudu
- benda ..... lotura
- benedikatu..... bedeinkatu
- benturaz ..... menturaz
- beste..... bertze
- besomotz..... besamotz
- betirako..... betiko
- boligrafo ..... bolaluma
- biribil ..... borobil
- derrigor ..... nahitaez
- derrigorrean..... behartuta
- derrigorrean..... derrigorrez
- desertu (Lit.) ..... basamortu
- oharkabean..... deskuiduan
- desondra..... desohore
- desira..... desio
- desterru ..... erbeste
- domeka..... igande
- ehunki ..... mende
- ihar..... eihar
- ekoitzi ..... ekoiztu
- errediza ..... altzari
- eskuma..... eskuin
- frontoi ..... pilotaleku
- gerrari ..... gerra(-)gizon
- guda ..... gerra
- gudaroste..... armada
- gurtza..... gurpen
- hamabosteroko ..... hamaboskari
- hemezortzi..... hamazortzi
- itxoin..... itxaron

B.
Xakeko zaldiak bezala salto eginez, zoaz goiko zalditik beherakora; horretarako, jauzika ibili beharko duzu bakar-bakarrik Euskaltzaindiak hobesten dituen hitzak dauden laukitxoetan barna.

ZALDIA	erbeste	guda	bertze	ainara	itxoin	borobil	zitori
frontoi	aisa	bakteria	aurrez ikusi	azuzena	opor	bakantza	bataila
benda	enara	bedeinkatu	aise	beste	besomotz	gudu	besamotz
hemezortzi	derrigor	betiko	desertu	bakterio	ekoitzi	pilotaleku	boligrafo
bolaluma	desondra	desohore	behartuta	deskuiduan	lotura	gurtza	desira
domeka	mende	ekoiztu	menturaz	derrigo-rrean	altzari	gerra	gerrari
itxaron	biribil	eskuma	igande	aurreikusi	armada	basamortu	hamabos-kari
benturaz	desio	gudaroste	nahitaez	derrigorrez	gurpen	ihar	ZALDIA

Nahasian

A. Hauta itzazu euskara batuan zuzenak diren aukerak.

HELDUENTZAKO PIRATA IPUINA

Ez aspaldi, piratak etorri ziren gure herrira. Udako arratsalde **batean / batetan** beraien **ontziak / untziak** agertu ziren gure lurren **aintzinean / aitzinean.** Arrantzan ari ziren gizonek ikusi zituzten urrutira, piratak beren **ontzietan / untzietan** izara beltzak zabalduta bi masta luzetan. Gaua noiz helduko **zai/ zain** ainguratu ziren, **kainoiak / kanoiak** luze herrira begira berriz ere.

Herriko jendeak mendi aldera jo genuen, ahal genituenak bilduz, ahal genuena korrituz: zaharrenak idi gurdietan atera ziren, umeak soinean zituztela, eta gazteenak ibaiaren beste aldeko artadian geratu ginen, zaldi batzuekin muinotik begira. Hirurogei bat baino ez ginen.

Ordurako **ontziak / untziak** portu sarrerarantz hurbildu ziren eta, **banan-banan / banan banan** igarotzean, itzal **beldurgarriak / bildurgarriak** egiten zituzten etxeetako pareta zurietan. Dozena bat **ontzi / untzi** beltz zetozen, gure herriko portu esturantz. Kaiari sokaz lotutako traineruak ere **ikutu / ukitu** hutsarekin birrintzen zituzten.

Guk adi begiratzen genuen gure talaiatik, isilik behatuz: **bost ehun / bostehun** gizon izango ziren, ongi armatuak guztiak; zaldi **batzu / batzuk** ere bazekartzaten, distira egiten zutenak ilargiaren argitara.

Gure artean eztabaida piztu zen ea zer egin behar genuen oraingo honetan, berriz ere herria xahutzen utzi ala aurre egin, ahal genuen moduan.

Orduan atera zen umea artaditik eta, ezer esan gabe, aldapan behera jo zuen korrika; ohartu ginenerako zubia gurutzatzen ari zen, herrirantz zihoan, antza.

Aita atera zen atzetik, balezta bizkarrean eta ezpata eskuan, eta aitaren ondoren osabak ; aldapan behera abiatu ziren denak. Orduan, nik ere gauza bera egin nuen eta **nere / nire** lagunek ere bai, eta **nere / nire** lagunen senideek ere bai; azkenean denok **jaitsi / jeitsi** ginen herrira, goiko kaleetan barrena taldeka sakabanatu ginen eta gutariko bat eliz dorrearen puntara igo zen, porturatzearen berri eman ziezagun.

Jaitsi / jeitsi i zenean, gertaera harrigarri bat kontatu zigun ordea, harrigarria benetan.

Umea portuan omen zegoen eta piratekin hizketan aritu omen zen denbora luzean, hauek **bapatean / bat batean / bat-batean** buelta eman eta beren **ontzietara / untzietara** itzuli ziren arte.

Pirata **ontziak / untziak** nahikoa urrundu zirenean, denok umearengana jo genuen; pozez gainezka geunden, halako balentriaren aurrean.

Aitak besoetan hartu zuen umea eta, estu besarkatu ondoren, ea gizon haiei zer kontatu zien galdetu zion.

Umeak herrian ez zegoela inor esan zuela erantzun omen zien. Denok barre egin genuen orduan. Umeak hori esan eta piratak joan! Sinestea ere kosta egiten zen. Ea ezer gehiago esan ote zuen galdetu ziotenean,, umeak baietz erantzun zuen, izurritea zegoela herrian eta horregatik aurkitu zutela hutsik.

Harritu egin ginen umearen burutazio harekin: izurritea. Bai, ez zen argudio txarra herritik ihes egiteko. Sinesgarria, gainera, kaleak eta etxeak hutsik dauden herri **batean / batetan**, ume txiki haren ahotik entzunda. Ume haren argitasuna miretsi genuen. Etorkizuneko buruzagia ikusi genuen beragan.

–Oso ausarta izan zara, mutiko, ausarta benetan! –esan zion amak begiak bustita–. Izurritea! Hau ume deabrua, hau!

–Ez al da egia, ama? –erantzun zion honek–. Ez al duzue igarri, ama? Izurritea dago herrian, jendeak oso itxura txarra du. Begira nolako begi zuloak dituzuen, denok negarrez ari zarete beti, mina duzue barruan! **Gaiso / gaixo** zaudete.

–Baina umea! –esan zion amak, umea inguratzen zuten gainerakoei begiratuz–. Nolakoak esaten dituzun!

Baina gainerako guztiok gure betzuloetatik begiratzen genion umeari.

–Gure etxeak utzi ditugu, hutsik eta ateak itxi gabe –jarraitu zuen–. Korrika atera gara herritik, denak negarrez... Gizon gaiztoak datozenean, beti berdin egiten dugu, eta hori **gaiso / gaixo** gaudelako da, herri osoa dago **gaiso / gaixo!**

–Umeak arrazoi du! –hasi zen oihuka jendea.

–**Baina / Bainan** ni ez! –txikiak, berriz–. Ni ausarta naiz eta makila batekin baleak hilko ditut eta **borroka / burruka** egingo dut mamuen aurka eta gauean karrakela baten barruan **ezkutatuko / izkutatuko** naiz! Baina ez naiz korrika aterako, ni mutil ausarta naiz eta horregatik bizardun horiei berekin eraman nazaten eskatu diet, baina ez dute nahi izan. **Handienak / haundienak** **ikutu /ukitu** ere ez egiteko esan dit eta **beldurtuta / bildurtuta** joan dira denak.

Jon Maia
Administrazioa euskaraz aldizkaria, 54. zenbakia, 2006ko urria (moldatua)

B. Itzul itzazu ondoko hitzok

Responsabilidad:	Automóvil:
Voluntario:	A escondidas:
Documento:	Porcentaje:
A la derecha:	A gusto:
Abaratar:	Notario:
Contexto:	Bolsa:
Punto:	Subjetivo:
Avenida:	Perfume:
Recipiente:	Barco de vapor:
Reflejar:	Disciplina:
Minuto:	Segundo:
Funcionario:	Opinión:
Parrafo:	Neumonía:
Tocar:	Ministerio:

C. Bikotekide torturatzailea

1. Bete itzazu hutsuneak, taulatik hitz egokia aukeratuta
2. Eman itzazu letra lodiz eta etzanez dauden hitzen sinonimoak

Emakume ugarik etxean dute etsairik handiena. Lagun zuten bikotekidea ____1_____ bihurtu da, eta lagunaren babesa ____2_____ bilakatu zaie. Tratu txarrak dira horren emaitza.

Latza, baina ____3_____. Emakume ***askok*** goxotasunaren ordez, bikotekidearen hoztasuna topatzen dute etxean. Isekak, kolpeak, mespretxuak... Zitala bada ere, emakume askok _____4_____ ***patu*** hori dute etxean.

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeengana hurbiltzen ***saiatu*** gara, _____5_____ ez da _____6_____. Oro har, emakume horien egoera _____7_____ ahula da; ez dira beren kasuari buruz _____8_____ ***gai*** sentitzen. Asko eta asko beldur dira. Izan ere, ***sarritan gertatu*** da emakume bat ***ezizenarekin*** eta aurpegia erakutsi gabe azaltzea ***komunikabideen aurrean***, eta gero senarrak mendeku bortitza hartzea. Horregatik, emakumeen aldeko erakunde eta bulegoetan oso zuhurrak dira hedabideekin mintzatzeko garaian: “Oso kasu zailak dira, eta, gainera, _____9_____ txarrak baditugu. Gure ***helburua*** emakume horiei laguntzea da, ez ditugu ezertara behartu nahi”.

_____10_____ ere, bi emakume interes handiarekin hurbildu zaizkigu erreportaje honetara.

Izaskunek _____11_____ urte eman ditu ezkonduta. “Hasieran dena oso ondo zihoan, baina, denborak aurrera egin ahala, ***gisa*** guztietako erasoak jasan nituen. Azkenean, umilazio horrek birrindu egiten zaitu, eta jipoiak jasotzea ere onartzen duzu. Elkarrekin ginen bitartean, medikuekin eta _____12_____ arazoa konpontzen saiatu nintzen, bai bakarrik eta baita berarekin ere. Baina ezinezkoa izan zen. Azkenean, egun batean kalean aurkitu eta bahitu egin ninduen; ni hiltzeko prest zegoen. Orduan, _____13_____ _____14_____ erabaki nuen. Orain, Madrilgo _____15_____ batean nago osatu nahian”.

Maitek _____16_____ urte inguru egin zituen senarrarekin batera: “Nik behin bakarrik sentitu nuen ***beldurra*** _____17_____ osotasunagatik, eta hori etxetik _____18_____ nuen egunean izan zen. Senarrak arazo ***izugarria*** zuen alkoholarekin. Garai hartan ni ez nintzen egoeraz ***jabetzen***, erotzen hasia nintzela

uste nuen. ***Izugarrizko*** laidoak egiten zizkidan, baina orain jakin dut alabari ere egundokoak esaten zizkiola, eta, gainera, sortzen zituen ***iskanbila*** guztiak grabatu egiten zituela. Behin labanaz ere mehatxatu omen zuen".

PROFIL JAKINA

Gisa honetako hamaika kontakizun bil genitzakeen. Haien ***atzean***, izaera ***zeharo*** ezberdineko emakumeak daude, baina guztiek elementu _____19_____ bat dute: astintzen dituzten gizonezkoen izaera. Izaskunek, ***behintzat,*** ez du zalantzarik: "Guztiek profil bera dute; beti modu berean _____20_____. Hasieran gizon arruntak duen ereduarekin hausten dute; oso erromantikoak dira, zintzoak", esan du Izaskunek. "Baina, _____21_____, eraldatu egiten dira. Lehenengo, familiarekin, lagunekin edota zure ingurunearekin dituzun hariak mozten dizkizute, eta berekiko mendekotasun osoa sortzen. Horrela lortzen dute egoeraren jabe izatea. Azkenean, zure jarrera ahultzen duzu, uste duzulako horrela gauzak hobeto joango direla eta ez direla eraso gehiago gertatuko. Txarrena da erasoak eta jarrera onak tartekatzen dituztela, eta gehiago nahasten zaituztela". "Edutezko" jarrera hori haurrak direnetik dakartela dio Izaskunek, "hori oso goiz ikasten _____22_____". "Konponbiderik baduen?" galdetu dio bere buruari: "Ez, ez dira gaixoak, emaitza ona lortzen dutelako jokatzen dute horrela".

Aldi berean, Maitek dio tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeek soilik euren artean solas egin _____23_____ : "Lagun onenek ere ez gaituzte ulertzen; _____24_____ askotan esan didate beraiek senarrari ez lioketela ***gerturatzen*** utziko. Hitz horiei ezjakintasun handia darie, suntsituta zaudenean edozer jasateko gai _____25_____".

LAGUNTZA

Izaskunek eta Maitek tratu txarrak jasotako emakumeen bizimodua "zirrikiturik gabeko _____26_____" bihurtzen dela uste dute. ***Abailduta*** sentitzen direla esan dute. "Hainbestetan esaten dizute erotuta zaudela, azkenean zeuk ere sinetsi egiten duzu; badirudi guztia zuk nahi duzulako gertatzen dela, bizitza infernu bihurtu dela _____27_____", dio Maitek.

Infernu horretatik ateratzeko, erakunde publikoek hainbat zerbitzu dituzte. _____28_____ udalek edo aldundiek larrialdietarako etxebizitzak, diru laguntzak, lege aholkularitza eta beste hainbat zerbitzu _____29_____ dituzte.

Gehienetan, tratu txarrak jasotako emakumeek _____30_____ laguntza behar izaten dute. Horretan _____31_____ Ana Mari Sanchez. “Emakume hauek askotan ez dira ohartzen laguntza behar dutela”, esan digu. “Ia beti depresio egoeran iristen dira, antsietate handiarekin, sintomatologia askotarikoarekin”. Sanchezen esanetan, “kasu bakoitzean lan berezia egiten da, baina bada guztientzat _____32_____ den lan bat. Esate baterako, “mendekotasuna hain da handia, ezen ez _____33_____ uste bere kasa bizimodu berri bat eraiki dezaketenik; _____34_____ berreskuratu behar dute”.

Laguntzok goraipatzearekin batera, oraindik ere ***hutsune*** batzuk badaudela gaineratu nahi du Izaskunek: “Nik maiz deitu nuen laguntza telefonoetara, baina sarritan kasua salatzeko gomendioa ematen zidaten soilik. Ez jauna, ez da salatu behar zeure burua salbu ikusi arte, bestela arriskuan egon zaitezke”. Alde horretatik, larrialdietarako zerbitzuak handitu egin beharko _____35_____ dio Izaskunek, “zeren zenbait egoeratan _____36_____ _____37_____ behar duzu, esku hutsik eta nora joanik izan gabe”. Halaber, Izaskunek aitortu du egoera ekonomiko ona duela: “Baina _____38_____ behar dut laguntza, _____39_____ nozitu _____40_____ tratu txarrak. Egoera ekonomiko onean egonda ere, ez luke ezberdintasunik egon beharko, denok izan beharko genuke nora joan”. Ez da Maiteren egoera. Tabernari lanetan ari bada ere, _____41_____ ***iristen*** da hilabete ***amaierara***: “Ez dut esaten laguntzak limosna moduan eman behar dizkigutenik, nik neuk ere ez dut hori nahi; baina interesgarria litzateke _____42_____ akordioak egitea gu bezalako emakumeak lanean hasi eta burujabetasun ekonomikoa izateko”.

Ana Mari Sanchez psikologoa, Maite eta Izaskun bat datoz: “Gizarteak arazoa onartzen du, kasuaren larritasunaz jabetu da. Beraz, bolada hori baliatu behar dugu laguntza neurrietan sakontzeko eta tratu txarrak ematen dituztenen irudia behin betiko birrintzeko”.

Hiru _____43_____ irudikoz, ”hori gure esku dagoen ahalegina da”. ***Halaber***, beste neurri eraginkor bat ere bada “tamaina _____44_____” dena: “Gakoa hezkuntzan dago, generoen araberako ezberdintasunen eta rol jakinen hausturan”.

Jon Maya

2003ko abenduaren 28ko *Berria* egunkaritik hartua eta moldatua.

C.1. Aukeratu erantzun zuzena(k)

1	monstruo	munstro	monstruoa	munstroa	munstroan
2	amesgaizto	ameskaizto	amesgaiztoa	ameskaiztoan	amesgaiztoan
3	benetakoa	benetazkoa			
4	egunero egunero	egunero-egunero			
5	bainan	baina	baino		
6	erraza	erreza	errexa		
7	psikologikoa	psikolojikoa	sikologikoa	sikolojikoa	
8	hitzegiteko	hitz egiteko			
9	experienzia	experientzia	esperienzia	esperientzia	
10	nola nahi	nola-nahi	nolanahi		
11	hogeitamar	hogei eta hamar	hogeita hamar		
12	psikiatrarekin	sikiatrarekin			
13	behinbetiko	behin betiko	behin-betiko		
14	alde egitea	aldegitea			
15	zentru	zentro			
16	ogei	ogoi	hogei	hogoi	
17	nire	nere			
18	ihes egin	ihesegin	hies egin	hiesegin	
19	amankomun	komun			
20	jarduten dute	iharduten dute	iarduten dute	iharduten dira	
21	apurka apurka	apurka-apurka			
22	bait da	baitda	baida	baita	
23	dezaketela	dezaketeela			
24	neri	niri			

25	bait zara	baitzara	baizara		
26	kutxa beltza	kutxa beltzean			
27	betiko	betirako	betiako		
28	lekuan lekuko	lekuan-lekuko			
29	eskeintzen	eskaintzen			
30	psikologoaren	sikologoaren			
31	jarduten du	iharduten du	iarduten du	iarduten da	
32	amankomuna	komuna	amankomunekoa	komunekoa	
33	bait dute	baitdute	baitute	baidute	
34	konfiantza	konfidantza			
35	liratekela	liratekeela			
36	bapatean	bat batean	bat-batean		
37	alde egin	aldegin			
38	berdin-berdin	berdin berdin			
39	berdin-berdin	berdin berdin			
40	bait ditut	baitditut	baititut	baiditut	
41	justu justu	justu-justu	juxtu juxtu	juxtu-juxtu	
42	enpresekin	entrepresekin			
43	emakumeren	emakumen	emakumeen		
44	handikoa	haundikoa			

C.2. Sinonimoak

BIKOTEKIDE TORTURATZAILEA

§ Askok: _____

§ Patu: _____

§ Saiatu: _____

§ Gai: _____

§ Sarritan: _____

§ Gertatu: _____

§ Ezizenarekin: _____

§ Komunikabideen: _____

§ Aurrean: _____

§ Helburua: _____

§ Gisa: _____

§ Beldurra: _____

§ Izugarria: _____

§ Jabetzen: _____

§ Izugarrizko: _____

§ Atzean: _____

§ Zeharo: _____

§ Behintzat: _____

§ Gerturatzen: _____

§ Abailduta: _____

§ Hutsune: _____

§ Iristen: _____

§ Amaierara: _____

§ Halaber: _____

Nafarrera

A. Esaldi zuzena(k) aukeratu, Nafarroako formak ere ageri dira.

1.

Herriko ume txikienak martinsaltoak harrapatzen ari dira.

Herriko ume txikienak matxinsaltoak harrapatzen ari dira.

Herriko ume txikienak martxinsaltoak harrapatzen ari dira.

2.

Ikaragarri kariotu da gasolina azken urteetan.

Ikaragarri garestitu da gasolina azken urteetan.

Ikaragarri karetu da gasolina azken urteetan.

3.

Ostadarra atera eta gero berrogei egunez euria egiten duela esan didate.

Ortzadarra atera eta gero berrogei egunez euria egiten duela esan didate.

Oztadarra atera eta gero berrogei egunez euria egiten duela esan didate.

4.

Gauean baserriaren inguruan oilarraren kukurrukua aditzen baduzu, bota gatza sura, sorginak aldentzeko.

Gauean baserriaren inguruan oilarraren kukurrukua aditzen baduzu, bota gatza sutara, sorginak aldentzeko.

Gauean baserriaren inguruan oilarraren kukurrukua aditzen baduzu, bota gatza sure, sorginak aldentzeko.

B. Aukeratu Nafarroako hitzak

Alkate bat zeruko atarian

Jesus behin San Pedrorekin ..... (1) hasi zen, ... (2) negar guziei bihotza ..... (3) zitzaiola eta gorrengatik zerura behar ez zirenak sartzera uzten zituela. San Pedrok, nahigabeturik,

- Hurren etortzen dena ..... (4) behar diat, ba – ..... (5) zuen.

Andaluz alkate bat agertu zen, zeruan sartzeko baimena galde eginez, kontzientziaz eta estomagutik garbi zegoela gaineratuz.

- Estomagutik garbi ote ..... (6) haizen ikusi behar diat. Horretarako munduko purga bat hartu behar duk.

Alkateak bi mila pezeta eskaini dizkio, horrelakorik gabe sartzen uzteko.

- Hemen dirurik gabe ez dik balio.
- Nire probintziako gobernadoreak ehun pezeta ere pozik hartzen ditu, nahi dudana egiteko.

San Pedrok aingeru guardiakoari mundura purga bila joan zedila esan zion. Mementoan ekarri zuen aingeruak eta alkateari harrarazi. Berehala hasi zen hau ahotik barnekoak ..... (7): lehenik, belar batzuk, gero karreterako ..... (8), azkenik ler arbolak.

Hura ikusirikan San Pedrok esan zion:

- Hire barne hori ez duk garbi zerura ..... (9). Ze pasatu duk hire baitan?

Aingeruak esan zuen:

- Alkate zelarikan, belarrak ..... (10) hartzen zituen, karreterak eta oihanak ere bai, gero saldu eta inori ez zion pagatzen.

Orduan San Pedrok:

- Horiei itzuli ..... (11) ez haiz zerura ..... (12). Orain berandu duk.

Ezkerreko alderdian atari bat erakutsi zion, erranez:

- Hoa hemendik; hor badituk, infernuan, hi bezalako ..... (13) alkate batzuk.

Supazterreko eleak (moldatua)

1	mokoka	eleka	berbetan
2	esanez	erranez	
3	biguntzen	beraxten	
4	itxi	hertsi(tu)	
5	esan	erran	
6	jin	etorri	herdu
7	botatzen	egozten	
8	txintxarrak	legarrak	errekarriak
9	joateko	jiteko	fateko
10	alokairuan	arrenduan	
11	artio	arte	
12	joango	joanen	
13	bertze	beste	

C. Denbora-pasa “nafar hitzekin”

Aurki itzazu letra-zopa honetan...

G	U	F	L	E	E	I	R	D	N	I	A	M	V	J
E	K	A	H	T	B	O	I	P	A	R	K	A	E	S
M	H	A	Z	I	L	A	N	D	A	H	O	I	P	E
A	A	Z	E	R	B	O	L	E	K	A	Z	N	I	Z
R	R	I	P	I	E	D	E	M	O	T	A	D	U	Y
T	A	R	N	E	B	U	L	O	N	O	Z	I	L	A
I	Z	A	R	D	I	T	R	I	S	K	A	R	R	I
Z	O	A	R	D	I	E	A	I	N	G	E	E	P	A
O	R	O	T	A	R	R	E	B	O	B	I	N	A	T
E	R	R	E	R	O	N	E	T	A	B	A	R	Z	E
S	I	B	R	G	O	N	A	Z	P	I	E	D	E	R
G	Z	A	E	A	F	E	L	O	A	R	S	O	K	A
I	U	S	S	Z	A	R	P	A	S	T	O	T	S	O
S	H	I	A	T	I	I	U	B	A	R	A	I	U	J
U	T	A	K	E	M	O	K	A	S	I	N	K	A	O

... zortzi hitz hauen “nafar sinonimoak”:

kare _____ urtarril _____

txapel _____ zintzarri _____

eskumuin _____ Jauna hartu _____

azaro _____ Izara _____

HIZTEGIA.NET

Sarean dauden hiztegi eta Interneteko laguntza asko bildu dituzte gune bakar batean, helburu argi eta praktiko batekin: kontsultagune bakarra erabiltzea.

Euskarazko hiztegi erabilienak eta hain ezagunak ez diren beste batzuetarako bideak jaso dituzte **www.hiztegia.net** gunean: Elhuyar, 3000 hiztegia, Euskalterm, Euskara-Katalana hiztegia, Euskara-Estoniera, Euskara-Okzitaniera, sinonimoenak, gaikakoak...

Euskarazko hiztegiez gain, oso erabilgarriak diren Eurodicautom, RAE edo Le Grand Dictionnaire Terminologique hiztegiak ere baditugu bertan.

Corpusak ere badu bere txokoa eta laburdura eta akronimoekin osatutako hiztegiez gain, toponimo eta esaera zaharren datu baseetarako bidea jaso dugu.

Webgune honi esker, azkar eta erraz aurkitu ahal dugu bilatu nahi dugun hitz egokia. *ARTEZ Euskara Zerbitzuak* batu ditu denak.

Sar zaitez www.hiztegia.net gunean eta egundoko hiztegi sorta agertuko zaizu bertan. Horietako batzuk ezagunak izango dituzu liburuki euskarrian daudelako eta erabili izan dituzulako. Beste batzuk, berriz, euskarri elektronikoan baino ez daude.

Ezagunenak eta erabilienak, ziur aski, **Orokorrak** atalean dauzkazun *Hiztegi Batua*, *3000 Hiztegia* eta *Elhuyar Hiztegia* dira. Eguneroko jardunean, oro har, horietara jo ohi dugu.

Hiztegi Batua, 3000 Hiztegia, Elhuyar Hiztegia

a) Demagun ondoko termino hauek itzuli behar dituzula. Hiru hiztegi horiek baliatuta, nola itzuliko zenituzke euskarara:

- ***Lector óptico***
- ***Nervio óptico***
- ***Reconocimiento óptico de caracteres***

b) *Elhuyar Hiztegian* zer lokuzio agertzen dira **"nervio"** hitza tarteko dela? Nola esaten dira horiek euskaraz?

Euskalterm

Hiru hiztegi horiek batzuetan ez dira nahikoa izaten zenbait termino itzultzeko garaian, edota ez gara erabat konforme gelditzen haien laguntzaz egin dugun itzulpenarekin. Horrelakoetan, *Euskalterm* datu-banku terminologikora ere jo dezakegu kontsulta egitera. Sar zaitez *Euskaltermen* eta ikusi ea termino horiek agertzen diren.

Sar zaitez orain **Gaika** atalean.

a) Zer gairen inguruko hiztegiak daude bertan?
b) Sar zaitez *Medikuntza Hiztegian* eta begiratu ***nervio óptico*** terminoa ageri den.
c) Sar zaitez *Telekomunikazio Hiztegian* eta kontsultatu esanahi bera duten bi hitzok eta nola esaten diren gaztelaniaz:
    - Web gune
    - Web orri

Sar zaitez **Corpusa** atalean. Sorta interesgarria da oso. Besteak beste, hortxe dugu Gotzon Garateren *Atsotitzak* bilduma ere. Askotan, ezaguna dugun atsotitzen baten baliokidea topatu nahian ibiltzen gara testuinguru batean oso adierazkorra gerta dakigukeelako edota gure hizkera aberastu nahi dugulako. Kontsultatu ondoko atsotitz hauek baliokide edo parekorik baduten euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edota latinez.

- ***Aldapak berdintzeko ez dago dirua bezalakorik***
- ***Más vale pájaro en mano que ciento volando***